

ORIO

Uztailak 1-7

12-13 urte

Euskara

Uztailak 1	Ongi etorri Orioko Txurruka aterpetxera! Lehen egun honetan gauza berri pila bat ezagutuko ditugu, igerilekua, logelak, jangela, jolasteko zelaiak, frontoia... eta nola ez, udalekua zuekin pasako duten lagun berriak eta begiraleak ezagutuko dituzue. Gainera, zuentzat prestatuta dugun istorioan lehen urratsak emango dituzue irlak ezagutzuz eta materialak lortuz.
Uztailak 2	Irla ezberdinak multzokatzean artxipelagoak sortzen dira. Gaurkoan olinpiada lehiakor eta dibertigarri batean parte hartu beharko dute artxipelagoko kideek, beraien irlaren aberastasuna helburu! Hala ere, benetan hori al da bidea?
Uztailak 3	Hirugarren egun honetan, indarrak batu eta Agorregiko meategia bisitatuko dugu. Ze inguru polita! Eta... ibilaldiaren amaieran bainutxo bat hartzen badugu? Ondo iruditzen zaizue?
Uztailak 4	Indarrak batzea garrantzitsua da, baina beti ere, ondokoa zainduz eta errespetatuz egin behar da. Badakizue? Animatu eta goxatu ingurukoak eta ea eguneko helburua lortzen duzuen.
Uztailak 5	Inguruko hondartza handiena eta luzeena non dagoen badakizue? Bai, Zarautzen! Gertu gaudela aprobetxatuz, irteera egingo dugu Zarauzko hondartzara, eta eguna amaitzean, ederki erlaxatzeko eta deskantsatzeko aukera edukiko dugu!
Uztailak 6	Udalekuen amaiera iristen ari da eta mezu bat jaso dugu abentura zirraragarri honi amaiera emateko. Lortu dugu? Ez da erronka makala! Elkarlana eta konpromezua, horiek dira gakoak!
Uztailak 7	Iritxi zaigu azken eguna eta agur esateko momentua. Maletak ondo ondo antolatu, oroitzapenak txukun-txukun gorde eta autobusean bagoaz etxera bueltan.

***Oharra:** euria egiten duen egunetarako beste ekintza batzuk programatu ditugu.